



GOIRIENA GOIKOETXEA, MAITE

---

# Euskadin egingo dira 2020ko Joko Olinpikoak

Pi-pi-pi-PI...pi-pi-pi-PI...pi-pi-pi-PI!

Goizeko seiak. Ostirala da eta iratzargailuaren zalapartak dagoeneko nekez ateratzen nau amets goxoen babesetik. Astea luzea da benetan, amaiezina dirudi. Baina kafe egin berriaren usainak berpiztuta, gaurko egunari aurre egin diezaiokedala erabaki dut neure baitan. Aurpegia ur fresko-freskoz garbitu, jantzi, ondo gosalduta eta, liburuak eta makarroiz betetako *tupper*-a motxilan sarturik, autobusa hartzera noa. Goizeko 8etatik ordu bata arte eta eguerdiko 3retatik 6ak arte ikasle dihardut unibertsitatetan, Kimika lizentziaturako ikasgairik (edo irakaslerik) zailenekin hartu-emanen. Klaseak bukatu ostean, ostera ere, autobusa hartu eta mugikor/iratzargailu/argazki-kamera/mp3-an gordeta dudak musika-karpeta ireki dut. *Zea mays*, *Doctor Deseo*, *Fermin Muguruza* eta konpainia. Deskonexioa gehi txip aldaketa. Izan ere, gaueko 8etatik 10ak arte kirolari dihardut.

Kirola. Saski-baloia. Ume-umetatik bizi izan dut saski-baloia, ahizpa nagusiaren entrenamenduetan, albo batean jarrita, baloi erraldoi hura kontrolatu guran hasi nintzenetik. Badira 17 urte eta hamaikatxo momentu garai epel haiek igaro zirenetik. Momentu onak eta txarrak, egunen baten ahaztu ditzakedanak, baina balioak eta sentimenduak sustraituta geratu zaizkit. Diziplina, laguntasuna, konstantzia eta adorea. Saski-baloia ez da joko bat bakarrik, bizimodu bat da. Gaur egun, harrobian oinarritzen den klub baten parte naiz, neure betiko herrian. Estatu mailako zilarrezko ligan hasiberriak gara eta ilusioa nabarmena da.

Praka laburrak, zapatilak eta ilea ondo batuta gero, prest nago entrenatzeko. Aldagelan algarak eta txistek nagusi dira, baina kantxara sartu orduko entrenatzailearen aginduei so gaude. Gaur taktika landuko dugu gehien bat, bihar norgehiagoka eguna da eta. "Bat", "bi", "hiru", "gorri", "urdin" eta beste horrenbeste burduntzaldi bete sistema taktiko dakizkigu. Denen helburua bakarra da ordea, mugimendu bakoitza azkar, sendo, eta defentsaren erreakzioa irakurrita egitea, saskiratzea beraz.

Entrenamendua amaituta, leher eginda, etxera noa. Izaren artean galdua, berriro amets goxoen babesean jauzteak erraza da.

Katedralean nago. Gure hamaika mutil Ingalaterraren aurka jokatzeko ari dira zelai berdean! Zalaparta beste nonbaitetik dator orain. Anoeta. PUM! Ehun metroko korrikalariak irten dira, euren giharren ahalmena mugaraino eramanez.

KLAP, KLAP, KLAP. Bilduta dauden ikusle guztiak aldi berean txaloka hasi dira, neu ere batu naiz. Hasieran astiro eta gero eta azkarrago, erritmoa eta zirrara handituz. Pistan dagoen neska beltzaran baten eskakizuna da. Korrika hasi da, gero eta bizkorrago, itzelezko azkeneko bi pauso eman eta hegan egin du, edo hori iruditu zait behintzat. HIRUKOA! Eserita nago oraingoan, zuri-berdez jantzita eta zapatilekin, kantxatik metro batera. Fernando Buesa Arena dirudi honek. Ingurura begiratu dut. Lepoz gainezka dago. Ni bezala jantzita dauden beste bost neska Estatu Batuei aurre egiten ari dira. Nire izena aldarrikatu du norbaitek. Entrenatzailea da. Nire txanda da.

Pi-pi-pi-PI...pi-pi-pi-PI...pi-pi-pi-PI!

Aurpegian irribarre bat margotuta esnatu naiz, bart gaueko ametsa hezurretaraino sartu zait. Euskadin egingo dira 2020ko Joko Olinpikoak, esan dut zurrumurruka. Eta Fermin Muguruzaren abesti bat etorri zait burura ...

*Gure ordua heldu da txo ... kirolari euskalduna naiz eta harro nago!*

Norgehiagoka eguna da gaur.

# Euskadi acogerá los Juegos Olímpicos de 2020

Pi-pi-pi-pí...pi-pi-pi-pí...pi-pi-pi-pí!

6:00. Viernes. El despertador me desgarra ya difícilmente de los brazos de Morfeo. La semana parece interminable, pero el olor del café recién hecho me reanima. Me lavo la cara, me visto, desayuno y, tras cargar la mochila con los libros y el *tupper*, cojo el autobús. 8:00-13:00 y 15:00-18:00, horario de estudiante. Se me resisten las asignaturas (o profesores) más difíciles de la licenciatura de Química. Después de clase, cojo de nuevo el autobús y abro la carpeta de música de mi móvil. *Zea mays*, *Doctor Deseo*, *Fermin Muguruza* y compañía. Desconexión más cambio de chip. 20:00-22:00, horario de deportista.

El deporte. El baloncesto. He vivido el baloncesto desde pequeña. Empecé en los entrenamientos de mi hermana mayor, cuando en una esquinita, me encabezonaba en dominar ese enorme balón. Ya hace 17 años desde aquella cálida época. Han pasado buenos y malos momentos, que puede llegar a olvidar, pero los valores y los sentimientos han echado raíces en mí. La disciplina, el compañerismo, la constancia y el valor. El baloncesto es una forma de vida. Hoy día, juego en un club de cantera, en mi pueblo natal. Es nuestro primer año en la liga de plata a nivel estatal y la ilusión es incontenible.

Con los pantalones cortos, las zapatillas y el pelo recogido, estoy lista para entrenar. El vestuario es el lugar para el cachondeo, pero en la cancha el entrenador manda. Hoy trabajaremos la táctica, pues mañana es el día del partido. Tenemos un buen puñado de sistemas, aunque el objetivo no varía: realizar cada movimiento con explosividad, fuerza y leyendo la reacción del defensor para, finalmente, encestar.

Tras el entrenamiento, exhausta, me vuelvo a casa. Entre las sábanas, caigo, sin esfuerzo, en los brazos de Morfeo...

Estoy en la Catedral, ¡once de los nuestros se están midiendo contra Inglaterra! Percibo el alboroto desde otro lugar. Anoeta. PUM! Los corredores de los cien metros lisos salen disparados poniendo al límite la capacidad de sus músculos. CLAP, CLAP, CLAP. Los espectadores empiezan a aplaudir al unísono. Primero despacio, cada vez con más celeridad aumentando así la emoción. Una chica morena empieza a correr, cada vez más rápido, da dos pasos gigantes y vuela, o eso me parece al menos. TRI-TRI-TRI-TRIPLE! Esta vez me encuentro sentada a un metro de la cancha, con zapatillas y de verdiblanco. Es el Fernando Buesa Arena. Está abarrotado. Cinco chicas vestidas como yo están lidiando

contra Estados Unidos. Alguien vocifera mi nombre. Es el entrenador. Ha llegado mi momento.

Pi-pi-pi-pí...pi-pi-pi-pí...pi-pi-pi-pí!

Me he despertado con una sonrisa, el sueño de anoche se me ha incrustado hasta en los huesos. Euskadi acogerá los Juegos Olímpicos de 2020, he susurrado al aire...

Hoy jugamos.